

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure aplikazioarekin, bezeroekin harreman erraza eta erabilgarria izan nahi dugu. Aplikazioak informazioa emango du automatikoki, adibidez non dagoen aparkaleku libre bat eta nola iritsi. Horrez gain, laguntza pertsonala ere eskainiko dugu; erabiltzaileek arazoak edo galderak badituzte, gurekin harremanetan jarri ahal izango dira webgunearen bidez. Sare sozialetan komunitate bat sortuko dugu, erabiltzaileek iritziak eta aholkuak partekatzeko, eta horrela aplikazioa hobetzen joango gara. Beraz, gure harremanak izango dira zerbitzu automatizatua, laguntza pertsonala eta komunitatea, gazteei laguntzeko eta aplikazioa gero eta hobeagoa egiteko.